



ADISKI- DETZEA

**BIZIKIDETZA BAKE-BIDEAN
JARRI: NORBANAKOAREN
ZEIN GIZARTEAREN ZEREGINA**

baketik

BIZIKASI BILDUMA



AURKIBIDEA

baketik

BIZIZIKASI BILDUMA

Bizizikasi pedagogiaren monografikoen bilduma
Argitaratzailea: Baketik (Kondeko aldapa, 5B - 20400 Tolosa)
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak (Andoain)
Lege-gordailua: SS-1788-2010
2014ko apirila

Laguntzaileak:



| | |
|---|-----------|
| AURKEZPENA | 5 |
| 1. GIZA IZAERA | 6 |
| Pertsona eta gaztazkak | |
| • PERTSONA. | 7 |
| ·Baketik-ek erabiltzen duen definizioa. | 7 |
| ·Orain arte esandakoa ez da aski. | 7 |
| • GATAZKA. | 8 |
| ·Gatazka zer den. | 8 |
| ·Gatazkek modu eraikitzailean kudeatzeko premisak eta gakoak. | 8 |
| • ERREKONTZILIAZIOA. | 9 |
| ·Errekontziliazioa gatazkaren faseetan. | 9 |
| ·Errekontziliazioa bake-prozesu batean. | 9 |
| ·Errekontziliazioa sistema demokratikoan. | 10 |
| ·Errekontziliazioa norberaren erabakia ere bada. | 10 |
| 2. SUFRIMENDUA | 11 |
| Biktimizazioa eta biktimak | |
| • BIKTIMIZAZIOA. | 12 |
| ·Argitu beharreko zenbait puntu. | 12 |
| ·Aspektu kritikoenak. | 12 |
| ·Sufrimendua lantzeko erreferentziak. | 13 |
| • BIKTIMAK. | 15 |
| ·Nor dira biktimak? | 15 |
| ·Zein da lehentasuna? | 15 |
| ·Biktimen eskubideak eta gizartearen eginbeharrak. | 15 |
| ·Errealitate-printzipioa. | 17 |
| ·Hiru konpromiso etiko. | 17 |
| 3. ERREKONTZILIAZIOA | 18 |
| Oinarri etikoak | |
| • OINARRIAK. | 19 |
| ·Definizioa: elkar errespetatu eta onartzea. | 19 |
| ·Subjektua: gizartea. | 19 |
| ·Helburuak. | 19 |
| ·Estrategia. | 19 |
| • ARDATZAK. | 21 |
| ·Iragana: azterketa kritikoa. | 21 |
| ·Oraina: humanizazioa. | 21 |
| ·Geroa: prebentzioa. | 22 |
| • GAKOAK. | 22 |
| ·Denborak. | 22 |
| ·Biktimak. | 23 |
| • KONPROMISOA, NORBANAKOARENA. | 23 |

AURKEZPENA

Errekontziliazioaren arloa lehentasunezko jarduera-eremua izan da Baketik-entzat eratu zenetik. Urteetan, gai honi buruz gogoeta egiten jardun gara, ETArekin indarkeria amaitzen zenean egin behar zenari buruz. Une hori iritsi da. Bakearen garaia zabaldu da, eta bizikidetzaren errekontziliazioa bakearen garapena da.

Errekontziliazioaren arloan Baketik-en ekarria lau eremutan egituratzen da: formazio zuzena helduentzat, dibulgazio soziala, aholkularitza hezkuntza mailan eta aholkularitza maila soziopolitikoan eta instituzionalean:

- Formazio zuzena helduentzat. 2011ko azarotik Baketik-ek «Bizikidetzaren adiskidetzea: norbanakoaren zein gizartearen zeregina» ikastaroa eskaini du bere formazio-programaren barruan. Ikastaro honetan 650 lagun inguruk hartu dute parte. Horrez gain, gai honi buruzko hitzaldiak eman ditugu eta hauetara 2.800dik gora lagun hurbildu dira.

- Dibulgazio soziala. 2011ko urtarrilean, Baketik-ek «Indarguneak» ekimena jarri zuen abian. Urtero, urtarrilean, errekontziliazioari buruzko eduki zehatz baten inguruan adierazpen bat egitea proposatzen du jarduerara honek.


- Aholkularitza hezkuntza mailan. Baketik-ek baliabide teknikoak eta praktikoak eskaintzen ditu euskal auzian

giza eskubideen urraketak pairatu dituzten biktimei eskolan adierazi beharreko elkartasuna jorratzeko. Formazioa eskaintzen diegu irakasleei eta bizikidetzaren errekontziliaziora bideratzen da.

- Aholkularitza maila soziopolitikoan eta instituzionalean. 2011-12 ikasturtearen hasieran, Baketik-ek adiskidetzaren inguruan aholkularitza-eskaintza bat egin zien udalei. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako zenbait udalerritan ari gara lanean.

Argitalpen honen edukia aipatutako errekontziliazioari buruzko ikastaroen oinarria da. Errekontziliazio-prozesu baten edukari eta ibilbideari buruzko oinarritzko ideia adosten laguntzea da bere helburua.

Hiru ataletan egituratua dago: (1) Giza izaera. Pertsona eta gatazkak; (2) Sufrimendua. Biktimizazioa eta biktimak; eta (3) Errekontziliazioa. Oinarri etikoak.



GIZA IZAERA

PERTSONA ETA GATAZKAK

Zergatik galdetzen diogu geure buruari zer den pertsona izatea? Denaren abiapuntua hori delako. Esan genezake denaren hasiera hori dela, eta hori dela denaren oztopolekua ere. Gatazkak edo bizikidetzaren errekonziliazioa pertsonak bultzatutako prozesuak dira. Beraz, pertsonen ezaugarriek, mugek eta ahalmenek baldintzatzen dituzte. Hortaz, hauxe da gure galdera: zer da pertsona izatea?

PERTSONA

1. BAKETIK-EK ERABILTZEN DUEN DEFINIZIOA

Pertsonalismoaren ikuspegitik, hauxe da pertsona:

«*Pertsona hobera egiteko gaitasuna duen izaki bat da.*»

Ideaia bera modu landuagoan adieraz dezakegu:

«*Hobera egiten eta bere errealitatea eta ingurunea berregiten eta antzaldatzen ahal duen izaki bat da pertsona, hiru gaitasunek horretarako bidea ematen diotelako: errealitatea aztertu eta juzgatzekoa, egiten duenari eta bizitzari berari zentzua bilatzekoa eta bere burua besteei ematekoa (maitasuna).*»

Definizio honek beste galdera bat planteatzen digu: Zer da hobera egitea? Testuinguru honetan:

«*Hobera egitea hobeki bizitzea eta besteekiko harremanak hobetzea da, mundu hobe sortzeko.*»

Nola? Giza baliabide horiek –errealitatea aztertu eta juzgatzeko gaitasuna, zentzua bilatzekoa eta bere buruari besteei ematekoa– giza duintasunaren balio gorenaren zerbitzura jarritz. Bestela esanda, hauxe da hobetzea: sen egozentriko hutsa baino zerbait gehiago izan nahia, irrikaren, herraren, oinazearen edo suminaren ondoriozko bulkada hutsa baino zerbait gehiago izan nahia.

Laburbilduz, honako hau esan dezakegu: pertsonak badu bere bizitza eta besteekiko harremana hobetzeko ahala; areago, badu adiskidetzeko gaitasuna ere. Zergatik? Bere barrenari begiratu, eta aukera desberdinak aztertuz, aukatzen ahal duelako.

2. ORAIN ARTE ESANDAKOAZ EZ DA ASKI

Beharrezkoa da beste zerbait gehitzea. Pertsonak sekulako gaitasuna du bere burua engainatzeko ere. Berezik, bi arrazoiengatik: (1) barneko bulkada bat baino gehiago izatea erabaki dezakeen arren, berekoikeria-inertziaren edo samindura-bulkadaren menpe bizitzeko justifikazio eta zuribide bila ibil daitekeelako; eta (2) gizakiok, izatez, mugatuak garelako. Pertsonak badaki, edo nolabait susmatzen du, hobera egin dezakeela, edo hobera egin behar edo nahi duela; baina, maiz, ez daki nola.

Bizitza, beraz, hobera egiteko gaitasuna eta nork bere burua engainatzekoa elkarren kontrako lehian ari diren borroka latza da. Borroka hori da ia denaren abiapuntua. Eta, errekontziliazioaren gaian, hoberena lortzeko irrika dugu, baina baita edozerekin konformatzeko joera ere. Bizikidetzaren bidezkoena, harmonia eta adiskidetzaren ditugu amets. Baina norberaren interesera makurtzeko jaiara dugu, ikuspegi sektariora eta gatazkara jotzekoa.

Tirabira honetan, izugarriko garrantzia du norberarekiko gatazka lantzeko moduak. Errekontziliazioak ere tentsio hori lantzeko modua du abiapuntua.

Tirabira horretan, bai bizitza bai bizikidetzaren jartzen dugu jokoan. Horretan ari gara denok. Eta puntu horretantxe du esanahi berezia arestian pertsonari buruz egin dugun definizioak. Hortxe dugu pixkana-pixkana hobera egiteko gaitasuna. **1***

1* Pertsonaren definizioa

| | |
|-------------------------------|---|
| Definizio laburra | Hobera egiteko gaitasuna duen izakia. |
| Definizio landuagoa | Izate mugatua eta sormen mugagabea dituen izakia da pertsona, hobera egitea eta bere errealitatea eta bere ingurunea berregin eta antzaldatzea daukana berebiziko ateak zabaltzen dizkioten hiru gaitasun baliatuz: errealitatea aztertu eta juzgatzeko gaitasunaz, egiten duenari eta bizitzari berari zentzua bilatzekoaz eta bere burua besteei ematekoaz (maitasuna). |
| Zer da hobera egitea? | Hobera egitea hobeki bizitzen eta besteekiko harreman hobeak izaten saiatzea da, mundu hobe sortzen ahalegintzea, horretarako hiru gaitasun horiek giza duintasunaren balio gorenaren zerbitzura jarritz. Bestela esanda, hauxe da hobetzea: sen egozentriko hutsa edo irrikaren bulkada hutsa baino zerbait gehiago izan nahia. |
| Lehenbizikiko ondorioa | Pertsonak badu gaitasuna bere burua hobetzeko, baita beste pertsonarekiko harremana hobetzeko ere. Eta badu, harremanak urratu direnean, adiskidetzeko gaitasuna ere. Zergatik? Aukeratu dezakeelako. |

GATAZKA

Ongi jabetzea nolako garrantzia duen gatazkak norberaren bizitzan, ongi ohartzea zer gatazka ditugun aurrez aurre, eta nola landu behar ditugun giza errealitatearen gako erabakiorrak dira.

1. GATAZKA ZER DEN

Funtsa

Harremanetarako izakiak gara. Gure bizitza guztia da harremana. Ezaguera dugunetik hiltzen garen arte, gatazka dugu bidelagun. Gatazka ez da ez ona ez txarra. Beste bat da kontua: nola egiten diogun aurre, nola lantzen dugun, gatazkaren bat dugunean zer erabaki hartzen ditugun.

Gatazkak bizitzaren funtsezko parte dira, eta giza harremanen gune guztietan daude present. Haiekin batera egiten dugu aurrera edo atzera. Gatazkak, aldi berean, krisia eta aukera dira, eta, horregatik, gure bizitza eta gure harremanak hobetzera edo okerragotzera eraman gaitzakete.

Definizioa

Gehienetan, «kontraposizio» modura baizik ez da definitzen gatazka. Beste zerbait gehitu nahiko genuke:

«Bi parte edo alderdiren edo gehiagoren arteko premia, helburu, interes edo ikuspuntuaren talka edo kontraposizioa, **alderdi bakoitza bizitzarako eta harremanetarako eragin erakitzaile edo suntsitzaileak dituzten erabakiak (etikoa?) hartzera behartzen duena.**»

Gatazka motak: erakitzaileak eta suntsitzaileak

·*Gatazka suntsitzaileak*, edo, hobeki esan, gehienbat joera suntsitzailea dutenak, gatazka horietan erabaki nagusiek honelako eragina dutelako.

- dehumanizatzen dute: gizakiari daukan okerrera aterarazten diote, desira txarrenak pizten dizkiote.
- ez dute araurik errespetatzen: salbuespenak justifikazioa aurkitzen du.
- ondorio edo kostuei dagokienez, desproporzionatuak dira.

·*Gatazka erakitzaileak*, edo, hobeki esan, joera erakitzaileak dutenak, gatazka hauetan erabaki nagusiek honelako eragina dutelako.

- humanizatzen dute: geure mugak oroitarazten dizkigute, egia absoluturik ez dagoela oroitarazten digute.
- zenbait arau errespetatzen dituzte.
- bidegabekeria salatzen dute; injustiziak, desorekak eta konpondu gabeko problemak daudela oroitarazten digute.

Sailkapen hau ez da estatikoa. Zer erabaki hartzen diren, fase desberdinak ere gertatu daitezke gatazka batean, eta gatazkak aldaketak izan ditzake, bilakaera bat.

2. GATAZKAK MODU ERAIKITZAILEAN KUDEATZEKO PREMISAK ETA GAKOAK

Zergatik «landu» hitza? Lan egokiaren bidez zerbait eraldatzea esan nahi du lantzeak. Gatazkak landu egiten dira, ez dira konpontzen. Hori da lehenengo pentsamolde-aldaketa. Bigarren aldaketa: gatazka suntsitzaile baten aurrean guztiok egin behar dugu lan hori, guztioi dagokigu. Eta hirugarrena: lan horrek egokia izan behar du (etikoa). Hauxe da azaldu nahi dugun proposamenaren arabera gatazken lantzeak duen zentzuaren definizio sintetikoa.

Premisa bat: borondatea edo horretarako nahia

Gatazka, beraz, ekidin ezin dugun errealitatea da, eta, kudeatzerakoan, joera erakitzailea edo suntsitzailea har dezake, lantzeko edo hari aurre egiteko moduen arabera. Badago premisa bat, aski ez baina ezinbestekoa dena, norberaren gatazkak modu erakitzailean bideratzeko: etikoki lantzeko borondatea, etikoki landu nahia, hau da, hartzen ditugun erabakiak etika oinarri dugula hartzea. Borondate eta nahi hori izanik, baliteke emaitza erakitzailea izatea. Oinarri hori gabe, ezinezkoa da ia.

Hiru gako: oinarriak, harrera eta lantzeko modua

·**Oinarriak** (edo paradigmak): bizi behar ditugun gatazkak aztertzeko, interpretatzeko eta lantzeko erreferentzia ezinbestekoak dira. Ohartuki edo oharkabean aukeratuak izan daitezke, hots, kontzienteki edo kontzientzia esplizituri gabe hautatuak. Gatazkak modu etikokan lantzez gerotan, kontzientziari begiratuta aztertu eta hautatu behar dira oinarri horiek.

·**Gatazkaren harrera pertsonala**: norberaren barrenean egin beharreko lana da. Norberak egin behar du hausnarketa, arerioa kontuan hartu gabe. Gatazka eta biok gaude bakarrik. Zuzeneko harremana dago gatazkaren eta gutako bakoitzaren artean, eta ez inork ez ezerk ezin du ordeztu. Harreman horren ondorio izango dira gure jokabide eta erantzunak. Gatazka bat ezin da etikoki landu, norberak gatazkarik ez badu bere buruarekin.

·**Elkarreragina** kanporako lana da. Gatazkarekin lotura duten beste pertsona batzuekin elkartuko gara, nor bere aportazioak eskaintzeko besteari, gaia hobeki aztertzeko, eta konponbide erakitzaile bat bilatzeko.

ERREKONTZILIAZIOA

Gure herrian «errekontziliazio» edo «adiskidetze» hitzak erresistentziak pizten ditu. Batzuentzat, konnotazio erlijiosoak ditu; beste batzuek elkarbizitzaren egoera faltsu batekin lotzen dute, bete ezinezko ametsa delakoan; batzuek errealitatetik kanpoko kontzeptua dela uste dute, gatazka badenik ere ukatzen duela-koan. Ez da hori inola ere. Errekontziliazioa kontzeptu zibil eta politikoa da, nazioarteko harremanen hizkeran sendotua, harreman diplomatikoetan errotua, baita hizkera akademikoan ere. Zerikusi estua eta zuzeneko du gatazken konponbidearekin, bake-prozesuekin edo demokratizazioarekin. Betiere, bera edo bertsua da esanahi sakona: gatazka suntsitzailen baten ondoren, elkarrenganako errespetuan eta onarpenean oinarritutako bizikidetzaren berreskuratzea.

1. ERREKONTZILIAZIOA GATAZKAREN FASEETAN

Gatazka baten barrenean, lau fase bereiz daitezke. Haietako bakoitzean, esku hartzeko bideak ditugu.

·**Latentziaren fasean**, oraindik ez da lehertu gatazka, sorra da, baina haziz doa, azaleratu ez bada ere. Gure esku-hartzea prebentzioa da: nahi ez duguna gerta ez dadin lan egitea, aurrez, ebitatu nahi ditugun kalteak baino handiagorik egin gabe betiere.

·**Eskaladaren fasean**, eztanda egin du gatazkak, piztu dira liskarrak, sesioak, bortizkeria. Esku-hartzearen helbu-

ria oldarkortasuna geldiaraztea da, hau da, indarkeria erabiltzeko asmoa kentzea, lehiaren daudenak baretzea, gatazka indargabetzea, kalteak ekidin, moteldu, mugatu edo murriztea.

·**Blokeoaren fasean**, gatazkaren ezaugarri nagusiak tentsioa, bortizkeria eta inkomunikazioa dira. Gure apor-tazioa desblokeoa bilatzea izango da, distentsioari eta komunikazioari bide emanez, akordioak bilatzeko asmoz.

·**Elkarbizitza berregiteko fasean**, zauriak osatzea da lana, hondatutakoa konpontzea, ahal dela betiere. Adiskidetzeko prozesu bat bultzatzea izango da gure esku-hartzearen mamia, hiru konpromiso harturik: iraganari dagokionez, azterketa kritikoa egitea; orainari dagokionez, osatzea, kalte-ordainak ematea, hots, biktimenganako elkartzun eraginkor eta egiazkoa; eta geroari dagokio- nez, prebentzioa. **2***

2. ERREKONTZILIAZIOA BAKE-PROZESU BATEAN

Une jakin batean, zenbait arrazoiren ondorioz horretarako baldintza egokiak sortu direlako-edo, gatazkak blokeoa gainditu, desblokeo fasera pasatu, eta bake-prozesuaren dinamikan sartzen da. Horixe gertatu berri da Euskal Herrian. Ondoko koadro honetan, gure gatazkaren modukoetan izan ohi den bake-prozesuaren egitura ikusiko dugu. **3***

2* Prebentzioa gatazka baten faseetan

| Faseak | Esku-hartze mota | Edukiak |
|----------------------------------|----------------------|---|
| Latentzia | Prebentzioa | Aldez aurretik lan egin, kalte larriak ekiditeko, ekidin nahi duguna baino kalte handiagorik sortu gabe. |
| Eskalada | Erasoak geldiaraztea | Kalteak ekidin, mugatu edo murriztearren, liskarrean ari direnak geldiarazi, konbentzitu. |
| Blokeoa | Desblokeatzea | Distentsioa eta komunikazioa bultzatu, akordioak lortzeko. |
| Bizikidetzaren berregitea | Adiskidetzea | Hiru konpromiso gauzatu behar dira: iraganarekin, azterketa kritikoa; orainarekin, sendatzea eta kalte ordainak ematea; eta geroarekin, prebentzioa. |

3* Errekontziliazioa bake-prozesu batean

| Ardatzak | Prekontziliazioa | Kontziliazioa | Errekontziliazioa |
|---------------------|--|--|--|
| Helburuak | Bakebiderako akordioak , giza eskubideen errespetuari buruz eta indarkeria modu ororen bukaerari buruz. | Normalizatorako akordioak adostea, denen artean bizikidetzaren sozopolitikoa arautzeko. | Bizikidetzaren baketsua berreskuratze ko akordioak egitea, giza duintasunari lehentasuna emanez. |
| Konpromisoak | ·indarkeriari amaiera ematea. ·giza eskubideak errespetatzea. ·humanizatzea. | ·joko-arauei buruz. ·bizikidetzaren markoari buruz. ·bermeei buruz. | ·iraganari dagokionez: azterketa kritikoa . ·orainari dagokionez, kalte-ordainak . ·geroari dagokionez, prebentzioa . |

3. ERREKONTZILIAZIOA SISTEMA DEMOKRATIKOAN

Lege, konstituzio, arau-multzo, erakunde eta hauteskunde sistema guztiak, hezkuntza sistemak eta mundu modernoak duten antolamendu juridiko-politiko guztiak gorago-ko helburu bat bilatzen dute: bizikidetzak baketsua erdies-tea, hots, errespetuan eta zuzentasunean oinarritutako elkarbizitza lortzea.

Laburzki, demokrazian, helburua bizikidetzak baketsua lortzea eta iraunaraztea da. Baina, arrazoia edozein delarik ere elkarbizitza hondatu edo gaiztotu denean, bizikidetzaren errekontziliazioa da lehentasuna. Eta esan genezake gakoa puntu hau dela: justizia eta errespetua oinarri hartuta, elkarrekin bizitzen ikastea. Ez dago hori baino helburu inportanteagorik. Gizarte demokratikoaren antolamendu guztiak helburu hori du, hori du zerumuga.

4. ERREKONTZILIAZIOA NORBERAREN ERABAKIA ERE BADA

Arestian esan dugu pertsona, erabakitzen ahal duenez gero, hobera egiteko eta bere errealtatea aldatzeko gaitasuna duen izaki bat dela. Adiskidetzak ere, hortaz, lehenik

eta behin, pertsonaren erabaki bat da, norberaren aukera bat. Erabaki horrek hoberenerako irrikaren eta txarrenerako joeraren arteko tentsioan du gertalekua. Egoera horretan egin dezakegu hobera; egoera horretan eralda dezakegu errealtatea.

Bizikidetzaren tentsioetan ere, erabaki bat har dezakegu: erreazio-bulkaden bidez erantzutea, edo etikoki landutako erantzunak ematea; gorrotoaren bulkadei atea irekitzea, edo bizikidetzak sustatzea; sumina, edo bestearengana hurbiltzea, baita barkatzea ere. Nire hautuak eginda –betiere kontraesanak eta inperfekzioak dituzte–, «nireekin» eta «besteekin» bizikidetzak eraikitzekeko prozesu bat konpartitu dezaket.

Kinka honetan, adiskidetzak erabaki pertsonala da. Eta abiapuntu hau du: norberaren baitatik abiatzen da. Erabaki guztiei dagokienez, norbanakoaren barreneko lantze prozesu batera garamatza. **4***

Hiru erabaki politiko eta sozial dira, duda izpirik gabe; baina, lehenik eta behin, gehienbat, pertsonaren erabakiak ere badira. Errekontziliazioa, hasteko, norberaren erabakia da, eta pertsona bakoitzak egin behar du hautua. Errekontziliaziarako, aldaketa soziala eta pertsonala behar da, pertsonala eta soziala.

4* Errekontziliazioa norberaren erabakia da, hiru erabaki-bloke dituen

| Norberaren aukera | Errekontziliazioak abiapuntu bat du: Adiskidetzeko erabakia pertsona bakoitzaren baitan sortzen da. | | |
|--------------------|---|---|--|
| Hiru-erabaki-bloke | Iraganari dagokionez | Orainari dagokionez | Geroari dagokionez |
| | Erabakia: parte baten interesaren alde egin edo gertatutakoei buruzko egiaren alde egin? | Erabakia: atxikimendu ideologikoaren enpatia edo murrizketarik gabeko enpatia? | Erabakia: zer nahi dugu izatea lehenbizikoa eta zer bigarrena? |
| | Erabakia: atsegin ematen digun bertsio bat bilatu, partziala, aldebarrekoa, are harroa ere, edo, bestela, kontakizun ausarta, egiari lotua, autokritikoa eta apala. | Erabakia: gutakoengana, gutarregana mugatutako elkartasuna, edo sufrimenduaren egia aldeanitzera irekitako elkartasuna. | Erabakia: gure kausari balio absolutua eman, edo giza duintasuna hartu kausa gorenekotzat. |



SUFRIMENDUA

BIKTIMIZAZIOA ETA BIKTIMAK

Borroka suntsitzaileen egiazko irudia sufrimenduaren aurpegia da. Gainerakoa aldakorra eta eztabaidagarria da; sufrimendua, ez. Sufrimendua da egiazkoena, baina onartu behar dugu hainbat problema ditugula biktimen oinazera hurbiltzeko.

Badakigu sufrimenduari begiratu behar diogula, engainurik gabe, haietarako aitzakiarik edo estakururik jarri gabe, eta ongi dakigu, horregatik, beste errealitate bati erreparatzen hasi behar dugula, ikuspuntu autokritikotik, gainera.

Biktimenganako hurbilketa horretan zailtasunekin egiten dugu topo, askotan ez dakigulako oso ondo zer egin eta nola egin. Batzuetan borondate onarekin ere kaltea sor dezakegu. Beharrezkoa da, beraz, sufrimenduaren inguruan eta biktimen inguruan hausnarketa bat egitea.

BIKTIMIZAZIOA

Biktinekiko elkartasunak giza izaeraren alderik delikatuena jartzen digu bekoz beko: sufrimendua. Sufrimenduak, batik bat bidegabekeriak eragina denean, enpatia eta elkartasuna pizten dizkigu.

Genetikoki prestatuak gaude enpatiarako. Hari eskerrak, gurea balitz bezala sentitzen dugu, parte batean, lagun hurkoaren sufrimendua. Eta, horren ondorioz, besteez kezkatzen gara, besteen ardura hartzen dugu. Enpatia da, beraz, elkartasunerako eta altruismorako gaitasunaren oinarria. Berekoikeriaren bulkada hutsa baino gehiago gara, eta solidarioak izatea erabakitzen ahal dugu. Gizartea eta bizikidetzeta, hain zuzen ere, horregatik dira posible.

Edozein injustizia edo zoritxarren biktimen ondoan egotea erabaki dezakegu. Erabaki hori harturik, garatu egin behar da hautua, bide horretan ibilbide bat egin hezkuntzaren, adiskidetzaren eta etikaren ikuspuntutik. Ez da ona, ez da zuhurra, bat-bateko edo bulkadakako elkartasuna izatea ibilbide horren gidari bakarra. Gogoetaren ondorioa ere izan behar du elkartasunak, eta gogoetak sufrimenduaren oinarritzko nozio batzuk hartu behar ditu aintzat.

Gutxi hitz egiten da, eta gutxi dakigu, biktimizazioak eta biktimizazioak pertsona bakoitzarengan duen jokamoldeaz. Eta ezjakintasun hori dela-eta, asmo on-enez jaiotako elkartasuna kaltegarria ere izan daiteke biktimarentzat, jasotako kolpearen ondoren biktima bere onera etor dadin.

Lan honen tesietako bat, adibidez, honako hau da: biktimismoa da biktima bere onera etortzeko etsai handiena. Gerta daiteke, eta maiz gertatzen da, elkartasunak biktimismoa bultzatzen duela biktima, asmo onez lagundu nahirik ere.

Sufrimendua eta biktimizazioa ulertzeko gutxieneko gakoan berri izatea ezinbestekoa da hari aurre egiteko, pertsonari lagun egiteko edo elkartasuna sendotzeko.

1. ARGITU BEHARREKO ZENBAIT PUNTU

Fenomeno honen oinarritzko ezagutza izateko, bost puntu argitu behar dira.

•**Definizioa:** mina eta prozesua. Latinezko sufrimendu hitzak bi ideia biltzen ditu: batetik, sufrimendua, hots, mina, pena, oinazea, baina, bestetik, pazientzia, hau da, konformidadea, mina jasateko gaitasuna. Beraz, sufrimenduak biak ditu bere barrenean: mina eta mina eramateko gaitasuna. Kontraesana dirudi, baina jakinduriaraz beteriko sintesia da.

•**Kontzeptua:** ez da ona, baina ezin dugu ekidin. Berez, ez du zentzurik sufrimendua desiratzeak. Ondoren, zentzua aurkitzen ahal diogu, bizitzaren esperientzia ekidinezina den aldetik, baina patologikoa da sufrimendua nahi izatea. Gizakiak berezkoa du osasunean eta zorientasunean bizitzeko borrokatzea. Sufritzeko bizitzea edo dolorismoa bizitzaren zentzutzat hartzea, duda izpirik gabe, osasungaitza da.

•**Oinarritzko bi garabide:** pertsona deuseztatzea eta hazteko aukera. Sufrimendua, behin pertsonaren bizitzan sartuta, deuseztatze bide bihur dakioko, baina baita hazteko aukera ere. Sufrikario, oinaze eta pena besterik ez bada, pertsona deusezta dezake. Baina, horrekin batera, pazientzia, konformidadea edo tolerantzia garatuz gero, hau da, pertsonak sufrimendua lantzeko prozesua egiten badu, hazteko aukera ere bihurtzen ahal zaio.

•**Genesisia:** jatorritzko sufrimendua. Sufrimenduaren berezitasunetako bat zera da: bakarrik uzten gaitu. Banatzen zaila da; kutsatu daiteke, bai, baina, besteei transmititu arren, norberak du ezinbestean bere sufrimendu kuota. Hori da minaren ezaugarria: indibidualizatu egiten gaitu, bakoiztu. Horregatik, edozein sufrimenduk gure erroetako bakardadera garamatza, hots, amaieradun izatearen jatorritzko sufrimendura, finitutasunaren oinazera. Sufrimendu honek beste izen batzuk ere hartzen ditu: babes-gabezia, ezinegona, larrimina, ezongi edo asegabetsun existentziala.

•**Sailkapena: lau sufrimendu mota.** Sufrimenduak modu askotan sailka litezke. Baina denbora irizpide hartuta, haiek ordenatzeko sailkapen erraz batez baliatuko gara: (1) amaieradun izatearen sufrimendua, hots, finitutasunarena: bizitzaren eta heriotzaren larrimina, haiengatik larridura; (2) iraganaren sufrimendua: zauriek eta errudun-sentimenduak utzitako mina; (3) geroaren sufrimendua: existentzia kontrolatu nahiaren heretura; (4) orainaren sufrimendua: unean-unean asaldatzen gaituzten eta sufriarazten diguten sentimenduak.

2. ASPEKTU KRITIKOENAK

Sufrimenduaren sakonaz behar bezala jabetzeko, oinarritzko zenbait aspektu hartu behar dira kontuan, oinarritzko aspektuak, bai, baina kritikoak eta erabakigarriak fenomenoari egoki heltzeko. Historian zehar atera dira sufrimenduari buruzko konklusio hauek, gizateriaren esperientziaren fruitu, eta, gaur egun, noiztearen gaineko jakinduria unibertsala dira.

•**Funtsezkoa: dolua onartzea.** Sufrimenduak pertsona deuseztatzen du baldin eta gizona edo emakumea sentimendu biktimista hauen gurpil erotik ateratzen ez bada: samindura, larrimina, herra, oroimina, gaitzondoa, mendeku-gosea... Hala ere, edozein sufrimenduren biktimak nahitaez esperientatu behar ditu sentimendu horietako batzuk; erabat naturala da. Baina hori ez da problema; dolua pasatu behar da, eta ezaugarri horiek ditu. Sentimendu horiek pizten dira, eta haie-tako batzuk izatea ekidinezina bezain beharrezkoa da. Hortaz, onartu behar dira. Pertsonaren eta prozesuaren fase bat izan beharrean pertsonaren historiaren bizkarrezurra direnean da zinez problema. Dolua kontraesan ez beteriko trantsizioa da, beharrezkoa, eta bertan nahasirik ageri dira errebeldia biktimista eta galeraren onarpena.

·**Larriena biktimizazioa da; garrantzitsuena, hura gauditzea.** Problema hauxe izan daiteke: sentimendu biktimistak biktimaren bizitza gidatzen duen motore nagusia bihurtzea. Hori gertatzen denean, biktimizazioaz mintzo gara, hots, sufrimenduak eta haren atzetik gorderik doan biktimismoak pertsonaren bizitzan sor dezaketen blokeo suntsitzaileaz. Biktimarentzat, bizitza biktimizaziotik libratzea da garrantzitsuena. Biktimizazioa gaudituz gero, pertsona gauza izango da berriz bere bizitzaren jabe izateko, kolpeak kendu zion subiranotasuna berreskuratzeko. Azken batean, biktimak ulertu eta espermentatu behar du sentitzen duen mina baino garrantzitsuagoa dela bizitza.

·**Oztopo nagusia: biktimismoa.** Biktimismoaren menpe bizi denak biktima-izaera jarriko du bere errealitatearen beste edozein arloren gainetik. Har dezagun kontuan jokabide biktimista biktimaren baitatik sor daitekeela, baina inguruak edo elkartasun helduga-beak ere sustatu eta piztu dezaketela. Biktimismoa da biktimizazioa gauditzeko oztopo nagusia, sedukzio bihurtzen delako, atsekabearen kontrako alternatiba bakar eta hoberena delakoan. Biktimenganako elkartasun-esfortzu orok, hortaz, hori izan beharko du aintzat: biktimari biktimizaziotik eta biktimismotik askatzen laguntzeko baldintzak sortu behar ditu.

·**Biktimismoaren larritasuna:** lau arrazoi eta bost mezu. Lau arrazoi aski ongi adierazten dute biktimismoa hagitz fenomeno larria dela:

-Pertsona kapsula batean sartu, eta bizitzatik atera eta baztertzeko du.

-Errealitateak pertsonari eskaintzen dizkion pizgarrietatik urruntzen du biktima.

-Bere onera etortzeko espektatiba faltsua ematen dio biktimari, eta horrek mendekotasuna sortzen dio.

-Autonomia kentzen dio pertsonari, bost mezu gaizto bidaltzen baitzikio behin eta berriz:

·«Salbuetsia zaude bizitzan ahalegintzetik».

·«Deprimitua egoteko eskubidea duzu».

·«Baliatu zure abantailez erantzukizunei itzuri, ihes eta izkin egiteko».

·«Segi eroso egoera horretan, protagonista zara-eta».

·«Ez duzu nekatu behar bizitzarako zentzua bilatzen, baduzu bat».

·**Tresna nagusia: pazientzia.** Pazientzian ezbeharrei (desafio, zailtasun eta sufrimendu ez patologikoei) aurre egiteko bi gaitasun biltzen dira: egonarrria –pairamena, jasateko gaitasuna–, hots, pazientzia pasiboa, eta konstantzia –iraunkortasuna–, hau da, pazientzia aktiboa. Sufrimenduaren bakardade erotikoa bi isurial-

de dituen mendi bat da: sufrimenduaren minaren ondoriozko ahuldadea, eta sufrimenduko pazientziaren indarra. Mendi hau pazientziaren mazelatik igo behar da. Pazientzia da gizakiak sufrimenduari gogor egiteko duen berezko tresna nagusia, baitezpadakoa baita heriotzaren beldurraren sufrimenduan, iraganaren larri-minean, geroaren hersturan eta orainaren frustrazioen ondoriozko oldarkortasun hutsean erori ez eta aukera alternatiboetarako bideak irekitzeko.

3. SUFRIMENDUA LANTZEKO ERREFERENTZIAK

Sufrimendua ez da egun batez gauditzen eta betiko desagertzen. Berragertzen da. Ondoko hauek sufrimenduarekiko tratuan bizitzan zehar lortutako jakinduria existentzialaren munta handiko erreferentziak dira.

·**Aldez aurreko baldintza bat: norberak egin behar du prozesua, besterenezina da-eta**

Prozesua norberarena da, ezin du inork egin gure orde. Pertsonak nahia, erabakia eta pazientzia behar ditu, berriz bere bizitzaren lema gobernatzeko. Ingu-ruak eta elkartasunak lagundu egin dezakete –aldeko baldintzak sortuz–, baina ezin dute inoiz prozesua ordeztu. Sufritzen ari dena bere onera etortzeko baliabide nagusia elkartasuna dela pentsatzea espektatiba faltsua da, eta biktimizazioa gauditzeko prozesua geroratu besterik ez du egiten.

·**Sufrimenduari modu eraikitzailean heltzeko lau ardatz nagusiak**

·**Galdutakoaren onarpena; bizitzaren mugak.**

Onartzen ez dena ezin da antzaldatu; landu ere ezin da egin. Galera eta mugak onartzeak ez du esan nahi espektatiba faltsurik edo justifikaziorik hartzen dugunik babestzat, ez eta oroimenean edo gaitzondoan murgiltzen garenik ere. Galera onartzeko, denbora behar da, prozesu bat. Onartzea, bestalde, ez da ahaztearen sinonimo, baizik eta eragiten digun sufrimendu egoera berria onartzea, eta geure gain hartzea sufrimendu hori giza izaeraren mugen beste adierazpide bat dela. Muga horien gailurra heriotza da, eta heriotzaren errealitatea ere onartu behar dugu, nahiz eta hari aurre egin. Bestela esanda, gure izaera mugatu eta finitua onartu behar dugu.

·**Bizitakoaren kontzientzia; esker ona.** Prozesua abiarazteko ardatz nagusia da seguruena. Sufrimenduaren ondorioz, beti galtzen da zerbait. Galerak guztiaren tokia hartzen du. Ezinezkoa dirudi galdu dugunaren larrimina ez den ezer ere ikusteak. Alfer-gurpil honetatik ateratzeko baliabide hoberenetako bat bizitakoaz jabetu, eta espermentatutakoa aintzatetsi, baloratu eta eskertzea da, baita orain dugun guztia balioestea ere. Bizitakoaren kontzientziak, hau da, esker onaren sentimenduak, biktimismoaz bestelako bizibideak eskaintzen eta irekitzen dizkigu.

-Pentsamendu justuak, zuzenak; kontzientziari aditzea. Atsekabe biziak hondoraturik gaudenean, mota guztietako pentsamendu eta ideiak etortzen zaizkigu burura, hoberenak zein txarrenak, komenigarriak zein erabat desegokiak. Sufritzen ari denak pentsamendu zuzenak aurkitzeko premia du sufrimendua bere bizitzarako modu eraikitzailean landu ahal izateko. Horretarako, barreneko ahotsari entzun behar dio. Trantze horretan, sufritzen ari denak bi hitz entzuten ditu, bi ahots: bere kontzientziarena eta ondoan dituen pertsonena. Patalogietan salbu, kontzientziak beti du, sakon-sakonean, pentsamendu zuzen edo bidezko bat, proposamen etiko bat. Baina aurkitzeko, sakon entzun behar zaio kontzientziari, zintzo.

-Proiektuaren zentzua; giza duintasunaren balioa. Sufrimendu baten aurrean, proiektu burutugabe batek edo egiteko gelditu den proiektu batek edo proiektu berri batek pizten duen itxaropena izan daiteke abiapuntua sufrimendua lantzen hasteko. Bizitzarako proiektuak izatea eta haien alde egitea hautatzeko gaitasunaz baliatzearen pareko da. Biktima izateari loturik eta harrapaturik gelditu gabe, izan nahi duzun horren alde edo bizitzan eman nahi duzun horren alde egitea bereziki garrantzitsua da. Erabakiak hartzeko gaitasunak duintasuna ematen dio gizakiari. Proiektuaren

zentzua esperantza-iturri da, giza duintasunaren elikagai. Nork bere inguruan, familian, gizartean, munduan dugun lekua eta eginkizuna zein diren ikusarazten digu. Biktimismotik libratzeko pizgarri handienetakoa da.

•Azken bidea: oxigeno existenziala

Zenbait sufrimendu mutur-muturrekoak dira: sufrimenduaren zerogunea deitzen diegu. Existentziarako oxigenorik gabe uzten dute pertsona. Zirkunstantzia horietan, konfiantza da bizi-hatsa berreskuratzeko aukera ematen duen oxigeno existenziala. Haize kontra joatea da, eta, horretarako, nork bere barrenen jarraibide bat hazi eta txertatu behar du: *bizitzaren gakoa ez da kontrolatzea, konfiantza izatea baizik, fidatzea*. Eguneroko zereginak egoki bizitzeko, gutxieneko konfiantzarekin bizi beharra dago, baina, zerogunetik ateratzeko, baldintzarik gabeko konfiantza behar dugu. Konfiantzaren adierazgarri handiena maitasuna da, eta maitasuna da garrantzitsuena, existenziaren errotiko bakardadearen sufrimendua gainditzeko aukera ematen digulako. Pertsonak bere burua non abandonatzen duen, zertan jartzen duen konfiantzan, non maite duen baldintzarik gabe, hantxe aurkitzen ahal du bizitzarako zentzuaren dohaina, arnasa, sufrimenduaren zentzugabekeriari (baita erradikalenari ere) aurre egiteko indar eta oxigenoa. Hori da azken alternatiba.

BIKTIMAK

1. NOR DIRA BIKTIMAK?

Galdera zentzugabea iruditu dakiguke, gure ustez ederki dakigulako nor diren biktimak. Halere oso zentzuzkoa da galdera hori.

Zer izen(dapen) erabiliko dugu haiei deitzeko? Euskal gatazkaz ari garela, noiztik aurrerakoak dira biktimak? Epai judiziala duten kasuetako pertsonaz ari gara? Edo aski da gatazkarekin zentzuzko lotura izatea? Zer ekintza motatako biktimez ari gara? Eta heriotza gertatu denean, zein gradu-tarainoko senitartekoak hartuko ditugu biktimatzat?

Biktimak zein diren galdetzea, hortaz, oso zentzuzkoa da. Zein da helburua? Baztertuen edo laidoa sufritzen dutenen talderik ez sortzea. Aipatutako kasu guztiak badira edo ez dira biktimen adierazgarri?

Ohikoena erantzun ideologikoa ematea da. Denontzat, hurbilenak biktimak dira, jakina; urrunekoak, berriz, behar-bada bai, behar-bada ez.

Elkartasun printzipioa aplikatuko dugu, irizpide zabala, eta ez murriztailea. Hauxe izan daiteke gure abiapuntua: onar dezagun ez ditugula ezagutzen zenbait biktima eta sufrimendu, sufrimendua ez dela gure «ondarea», eta, arlo honetan ere, ez garela egia osoaren jabe.

Nor dira biktimak? Gatazka suntsiztaile batean izandako indarkeriak, giza eskubideen urratzeak, ezbeharrek, tratu txarrek, umiliazioek edo laidoek eragindako sufrimendu bizi edo larria edo ezin konponduzko kaltea jasan duten pertsonak edo familiak, edozein delarik ere beraien edo erasotzaileen kausa edo taldea.

Pertsona horiek identifikatzeko irizpide metodologikoa ez da aurrejuzgu ideologikoa, ez eta inor baztertzea edo gutxiestea ere norberaren sufrimenduarekin konparatuz edo konpentsazioak edo zuribideak bilatuz. Irizpide etikoa entzutea da, bestearen lekuan jartzea. Biktimen lekuan jarri beharko dugu, biktimei, aintzat hartzen ditugula sentituta, barrenean metatu zaien mina arindu dakien eta min hori modu egokian bideratu dezaten.

Edozein gatazkatan, «biktimak nor diren» galdetzea erronka pertsonala da. «Beste» sufrimenduak ezagutu eta aintzat hartu behar ditugu, «besteen» sufrimenduak.

2. ZEIN DA LEHENTASUNA?

Oso gai labaina da hau, eta gerta daiteke zerbait asmo hoberenaz eginagatik ere emaitza txarra edo kaltegarria izatea biktimantzat. Horregatik, ezinbestekoa eta egokia da geure buruari galdera hori egitea. Beste hitz batzuekin: biktimek zein dute behar bizien eta sakonena? Biktimantzat eta zuzeneko senitartekoentzat, biktimizazioa gainditzea da lehentasuna, hau da, erasoak biktimaren eta ingurukoaren bizitzan sortzen duen blokeo suntsiztailea gainditzea:

- Biktimizazioa gainditzeak ez du esan nahi biktimak ahazten duela, baizik eta blokeotik askatzen dela.

- Esan nahi du biktimak erasotzailea garaitzen duela, hark bizitzan utzi zion negatibitate zamatik askatzen delako.

- Esan nahi du, bestalde, biktimak dolua eta sufrimendua integratzen dituela bizitzarako zentzu eraikitzaile baten zerumugan.

- Esan nahi du, orobat, biktimak askatasuna berreskuratzen duela, eta bere bizitzaren jabe sentitzen dela berriz, bizitzaren arlo guztietan.

- Esan nahi du, laburbilduz, eraso bortitzak pertsonari ebansitako subiranotasun pertsonalaren kuota berreskuratzen duela biktimak.

Nola lortzen da biktimizazioa gainditzea? Hausnartu dezagun honi buruz, arazo latzena itxaropen faltsuak izaten direlako, hots, biktimizazioa bide hauetakoren batetik gaindituko dela pentsatzea:

- biktimismoan babestea, pena ematea, uneoro iraindua sentitzea...

- konfiantza gaitzondoan, gorrotoan edo herran jartzea...

- mendeku hartzeko gogoia edo errudunak bilatu nahia asetzea...

- edo, elkartasunari edo besteen sostenguari esker neure onera etorriko naizela pentsatzea.

Biktimizazioa gainditzeko, biktimak barne-prozesu pertsonala egin beharko du. Biktimak berak egin beharko du; ezin du inork egin haren orde, eta kanpoko faktoreek ezin dute ordeztu.

Biktimizazioa gainditzeko, biktimak prozesu pertsonal zail hori jarri behar du abian, eta hori lortzeko aldeko baldintzen premia ere badu: a) biktimari babesa eta elkartasuna ematen dizkioten familiartea eta lagunartea; b) norbaitekin hitz egiteko eta barrena husteko aukera; c) behar adinako laguntza material eta ekonomikoa; d) lagun-egite pertsonal zein soziala; e) sostengu moraleko testuinguru publikoa; e) jasandako kaltearen aitorpena; f) adostasun giro soziopolitikoa...

3. BIKTIMEN ESKUBIDEAK ETA GIZARTEAREN EGINBEHARRAK

Hauxe galdetzen diogu geure buruari. Betebeharren bat ba al du gizarteak biktimekin? Baietz erantzuten dugu irmoki. Bi printzipioren izenean: elkartasunaren izenean eta berdintasunaren izenean.

Elkartasunak behar duenari laguntza edo sostengua ematen zaiola esan nahi du. Gurea bezalako gizarte moderno batean elkartasuna indar lotzailea duen printzipio soziala da.


Berdintasuna printzipio demokratikoa da, jardun politikoa eta bizikidetzat gidatu behar dituen. Erasoak, atentatuak, torturak, traumak edo haien guztien ondorioek inferioritate

egoeran uzten dute biktimea. Eta gizarteak hori konpentsatu behar du, ordaindu, ordaina eman.

Gizarteak printzipio bikoitz horregatik du betebeharrak bat biktimekin. Biktimei dagozkien eskubideak egia, justizia eta ordaina dira. Izenekin edo bestelako izenekin, hemen eta nonahi, hiru bloketan sailkatzen dira, koadroan ageri den bezala: (1) duintasuna aitortzen eta eskubideak itzultzen dituen eskubide morala, (2) kalte-ordainak izatearen eskubide materiala, eta (3) iraganaren memoria kritikoa baten eskubide politikoa. Azken honek garrantzi berezia du. Sekula berriz gertatu behar ez duenaren adierazgarri bizia dira biktimeak. Eskubidea dute, beste edozein pertsona edo taldek bezala, bake prozesuan parte hartzeko, eta

eskubide berezi bat dute: geroa ez dadin egin iraganean ezer gertatu ez balitz bezala. Egia eta justizia beren eskubideak dira.

Hiru eskubideak gizartearen hiru betebeharrekin bat datoz: (1) biktimek aintzat hartzeko betebeharrak morala. Horrek eskatzen du, lehenbizi entzutea, biktimea guztiak identifikatzeko; eta bigarren, haien aintzatespena eta duintasuna bistaratzea gizartearen; (2) laguntza materiala emateko obligazioa; eta (3) iraganaren azterketa kritikoa. Grafiko honen bitartez, argi utzi nahi dugu zein den, gure ustez, gizartearen eginbehera, baita ere zein diren eta zein ez diren biktimeen eskubideak. **5***



4. ERREALITATE-PRINTZPIOA

Gizarteak eta biktimaren inguruak lagundu egin dezakete, eta lagundu behar dute, eta aldeko baldintzak sortu, baina biktimizazioa gainditu dezakeen subjektu bakarra biktima bera da.

Kontuan hartu behar da, gainera, galera eta hutsune batzuek ez dutela konponbiderik: betiko dira. Hutsune horiek ezin izango ditu bete edo ordeztu ez elkartasunak –nahiz eta benetan lagundu, eta horregatik da beharrezkoa, aldeko baldintzak sortzen baititu–, ez biktimismoak, ez gorrotoak. Gorrotoak, bestalde, ez laguntzeaz gainera, biktimizazioa luzatzen du.

Errealitate-printzipio oinarrizkoa da, ongi zehazten baitu zer egin dezaketen biktimek eta zer egin dezaketen besteek, «hurkoek».

Duela urte batzuk, biktima baten senide zuzena zen emakume batek kontatzen zuen bera atentatuaren aurretik bulegaria, ama, emaztea, alaba, laguna, auzokidea eta abar zela. Atentatuaren ondoren, eta denboraren igarotzearekin konturatu zen gauza bakarra zela: biktima. Bere errealitatearen zati horrek bere bizitza osoa hartzen zuenez, pertsona bezala erabat hutseratua zegoen. Ez zuen beste ezertan pentsatzen, beti zauria zabalik eta erreminak zirikatua.

Denbora bat pasa zenean, emakume honek berriro ere lehen zen guztia izaten saiatu zen, biktima izateaz gain, eta, neurri handi batean, lortzen ari zen. Etorkizunean, bere horretan mantenduko da oroitzapena eta pairatutako zauriaren aztarna eta horrekin bizitzen ikasi beharko du baina bere bizitzaren gidaritza hartu ahal izango du berriro eta erasotzaileak eta erasoak bere bizkarrean utzi zutenaren zama suntsitzailaren menpe egoteari utziko dio.

Ez dugu inoiz ahantzi behar biktimizazioa gainditzea pertsonaren, norbanakoaren prozesu bat dela, lau urrats dituen:

- lehenbizikoa; nork bere bizitzaren lema eta gidaritza berreskuratu nahi izatea (adibideko bulegariaren kasuan bezala).
- bigarrena; sentimendu negatiboak onartzea (amorrua, gorrotoa, erantzun nahia, mendeku-gosea), eta baita haiek hitzez adieraztea ere.
- hirugarrena; biktimismoaren, herraren eta indarkeriaz erantzun nahiaren bulkadak geldiaraztea;
- laugarrena; pentsamendu zuzenak bilatzea. Atentatu baten ondorioz, alargun gelditu zen beste baten hitzak dakartzagu hona, aski adierazgarriak baitira. Hitzokin adierazi zigun bere hautua: «Nire etxean gorrotoak ez du tokirik izango».

5. HIRU KONPROMISO ETIKO

Lagun egin

Elkartasuna da gure lehenbiziko konpromisoa. Ezin ditugu abandonatu, haien egoerari ez ikusia egin, jasan duten sufrikarioaren aurrean beste alde batera begiratu. Herri-tar garen aldetik, biktimenzako laguntza pertsonalizatu beharra daukagu, kontuan hartuz kasu bakoitza errealitate desberdina dela. Eta gizartea garen aldetik, elkartasuna sozializatu eta ikusarazi behar dugu, eta bakearen eta humanizazioaren kultura hedatu.

Ez egin biktimen jabe

Inork ez luke biktimen kausaren jabe egin behar, edo haien kausaren buru edo protagonista izateko lehian ibili. Inork ez du sufrimenduaren eskusiba. Biktima guztiak hartu behar dira aintzat, baita gure «etsai» izan direnak ere, «gure» kontrako jarreran zeudenak. Biktimekiko elkartasunak dohainekoa eta aldeaniztuna izan behar du; norberak defendatzen duen pentsamendu politikoa edozein delarik ere eskaini eta onartu behar da, giza duintasunaren defentsaren aldeko konpromisoa dugula arrazoi bakarra.

Kontsentsua bilatu

Biktimekin ikustekoa duen guztian giroa ez gaiztotzeko konpromisoa hartuko dugu, baita modu unilateralean ez jokatzekoa ere. Biktimen alde egiten dugun guztian ahalik eta adostasun maila handiena lortzen saiatuko gara alde aurretik. Biktimengatik, eta biktimen izenean, batzen gaituena bilatuko dugu, ez bereizten gaituena.



ERREKON- TZILIAZIOA

OINARRI ETIKOAK

Bizikidetzaren errekontziliazioaren irispidea eta mamia aise uler daiteke irudi baten bidez. Gauza izan beharko genuke 15 urteko gazte baten aurrean jartzeko eta hiru galdera errazetarako erantzun zintzoa izateko:

·Zer gertatu da eta zergatik?

·Zer egin dezakegu orain?

·Zer egin beharko genuke berriz halakorik gerta ez dadin?

Galdera hauetarako erantzunek oso ezaugarri zehatzak izan behar dituzte: erantzun argiak izango dira, ez korapilatsuak, eta egia lotuak; ez dute gorrotorik piztu behar. Aitzitik, bizikidetzarako dei bilakatu behar dute, eta prebentzio-bide izango dira halako gertakaririk izan ez dadin gehiago. Horixe da bizikidetzaren errekontziliazioaren eginkizun tolesgabe, argi eta sakona.

Prozesu honek, bere baitan, lortzen oso zaila den ezaugarri bat izan behar du: edo konpartitua da, edo ez da errekontziliazio prozesua izango. Eta konpartitu ahal izateko, lehenik eta behin, errekontziliazio kontzeptuan bat etortzea komeni da. Atal

hau guztia proposamen bat da, proposamen irekia. Errekontziliazio prozesu bat zehaztu, sustatu eta konpartitzeko, hamar oinarri etiko iradokitzen ditugu.

OINARRIAK

1. DEFINIZIOA: ELKAR ERRESPECTATU ETA ONARTZEA

Indarkeria, zatiketa eta gatazka suntsitzailea nagusi izan diren etapa baten ondotik, errespetua eta elkar onartzea zutabe dituen bizikidetzaren berreskuratzeko bide ematen duen prozesua da errekontziliazioa. Ez du esan nahi «etsai» izandakoek adiskide izango direnik, baizik eta elkar errespetatu eta onartuko dutela. Hauxe dakar: gure gizartean eragina duten gatazka eta desadostasunak bakebidez eta modu demokratikoan kudeatzearen aldeko apustu zalantzagabea.

2. SUBJEKTUA: GIZARTEA

Errekontziliazioaren subjektua gizartea eta gizartearen ordezkariak dira. Ez da biktimen eginbeharra adiskidetzeari. Gizartearena da erantzukizuna. Biktimek prozesu honen onuradun izan behar dute; ez dute prozesuaren ardura hartu behar beren gain. Bi errealitate-printzipio azpimarratu behar ditugu:

- Ardatza. Errekontziliazioaz ari garela, mugarrak jarri behar dizkiogu eremuari. Bizikidetzaren errekontziliazioaren dimentsio sozialaz ari gara, hori baita muina. Errekontziliazioaren dimentsio indibidualak norberaren erabaki librearekin du zerikusia.

- Prozesua. Gizarteak bere barrenean urratuak, zauriak eta zatiketak pairatu dituenean, bizikidetzaren errekontziliazioa prozesu korapilatsua da, zaila, latza, eta pazientzia eskatzen digu, baita errealismoa ere, garbi eduki behar baitugu prozesu bat dela, progresio graduala beharko duena. Pausoz pauso egingo du aurrera.

3. HELBURUAK: KALTE ORDAINAK EMATEA, HUMANIZATZEA ETA ADOSTEA

Errekontziliazioak hauek ditu eginkizun: zauri pertsonalak sendatzea, gizartearen urratuak jostea eta zatiketa suntsitzaileei aurrea hartzea. Gatazka bortitz eta suntsitzaile baten ondoren, behar-beharrezkoa da errekontziliazioa. Gizartearen akordio zabal bat bilatu behar da errekontzi-

liazioa bultzatzeko, merezi bezalako lehentasunaz. Errekontziliazio prozesu batek zenbait helburu uztartzen ditu, denak munta handikoak eta elkarri lotuak; haietako bakoitzak, baina, bere eremua du.

- Helburu bat, pertsonetikoa, indibidualizatua eta urgentea. Osatzea eta kalte-ordaina ematea; biktimei egindako kaltea ezagutu eta aitortzea; haien oina-zea arintzea, ahal den heinean, eta kaltearen ordaina ematea.

- Helburu bat, gizartearekikoa eta lehentasunezkoa. Gatazka humanizatzea; gizartearen sarean gertatutako urratuak jostea: hausturak eta zatiketak sendatzea, gorrotoak eta aurrejuzguak desegitea, eta errespetua, elkarren kontra egondakoek elkar onartzea, eta elkarriketa piztea.

- Helburu bat, politikoa eta estrategikoa. Adostea; bizikidetzaren baketsua sendotzea, printzipio demokratikoei buruzko behar adinako kontsentsua oinarria delarik: justizia, askatasuna, berdintasuna eta bakea.

4. ESTRATEGIA: IRAGANARI, ORAINARI ETA GEROARI BEGIRATZEKO MODU BERRIA

Errekontziliazio prozesu baten helburuak erdiesteko bide edo estrategiaren funtsa iraganarekin, orainarekin eta geroarekin dugun harremana aldatzeko eta haiei begiratze-ko modu berria konpartitzea da. Ez da kontua denok berdin ikustea, baizik eta lehengo, oraingo eta etorkizuneko errealitatearekiko harreman berria izatea denok. Begiratu bat piztu, sortu eta bateratu nahi dugu: begirada kritikoa, iragana aztertzeko; begirada eraikitzailea, oraina egiteko; eta prebentziozko begirada, geroa sortzeko. Hiru denbora horiek dira errekontziliazio prozesuaren ardatzak.

Giza eskubideen urraketei buruzko datuak, euskal gatazkan

Galdera, betiere, hauxe da: Zer eginkizun dugu parez pare? Zertaz hitz egiten ari gara? Aspaldi honetan sortu dugun historia da iraganari, orainari eta geroari begiratze-
ra garamatzana. Ezer baino lehenago, bekoz beko, parez pare begiratu behar diogu historia honi. Hurrengo orrialdeko taularen datuek ulertzen lagunduko digute. **6***

6* Giza eskubideen zapalketen laburpen-taula

| | 1960-1975 | 1976-1978 | 1979-1982 | 1983-2013 | 1960tik 2013ra Guztizko zenbatekoa |
|---|--|-----------|-----------|-----------|---------------------------------------|
| ETA, ETA(pm), ETA(m), ETA VII, ETA VIII, CCAA, DRIL, IK, Iraultza eta beste batzuk | | | | | |
| Hildakoak | | | | | 837 |
| - Atentatueta | 24 | 99 | 244 | 444 | 811 |
